

ALKOHOL KONTSUMOAREN KALKULUA ETA EDARI UNITATE ESTANDARRA KONTZEPTUA

$$\text{Alkohol puruaren gramoak} = \frac{\text{bolumena (cm}^3\text{-tan adierazita)} \times \text{graduazioa} \times 0,8}{100}$$



EDARI UNITATE ESTANDARRA (EUE)

1 EUE = 10 g alkohol puru

Adibidez: pertsona batek 13 graduko ardo baten 100 cm³ kontsumitzen baditu, hartu duen alkohol absolutuaren kopurua hauxe da:

$$\frac{100 \text{ cm}^3 \times 13 \times 0,8}{100} = 10,4 \text{ g alkohol puru}$$

Alkohol gramoak kalkulatzeko modu horren ordez, azken urteotan, Edari Unitate Estandarraren (EUE) kontzeptua erabiltzen da. Espainian «**edari-unitate**» bat **10 gramo etanol puru da**.

Edari Unitate Estandarra kontsumitutako alkohol gramoak ezagutzeko modu azkarra eta praktikoa da, eta baliokidetasun-taula eta kontsumitutako edari alkoholaduna baino ez dira behar kontsumoa kalkulatzeko.

EDARI MOTAK ETA HORIEN BALIOKIDEA EDARI UNITATE ESTANDARRATAN

Edari-mota	Bolumena	EUE kopurua
Ardoa	1 baso = 100 cm ³	1
	1 litro	10
Garagardoa	1 kaña = 200 cm ³	1
	1 litro	5
Kopa	1 kafe patardun = 25 cm ³	1
	1 kopa	2
	1 konbinatu = 50 cm ³	2
	1 litro	40
Oparoak	1 kopa = 50 cm ³	1
	1 bermut (100 cm ³)	2
	1 litro	20